

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2016ko irailaren 9an aurkeztuko du

Sam Taylor-Johnson: *Hasperena*

Sam Taylor-Johnson: *Sigh*

- Noiz: 2016ko irailak 9–abenduak 11
- Komisarioa: Lucía Agirre
- Film & Video aretoa (103)

2016ko irailaren 9tik abenduaren 11ra Guggenheim Bilbao Museoa Sam Taylor-Johnson *Hasperena* (*Sigh*, 2008) artelana hartuko du. Espainian lehenbiziko aldiz egongo da ikusgai, 2014an irekitako Museoko Film & Video aretoan, zeinetan bideoarte, bideoinstalazioak eta irudia mugimenduan darabilten lanak erakusten diren.

Ikus-entzunezko instalazio hau osatzen duten zortzi pantailak zintzilik daude eta bertan ematen da zortzi minutuko musika-lan baten antzezipena. Musika-lan hori berariaz idatzi zuen instalazio honetarako Anne Dudley musikagile ezagunak; BBCko Kontzertu Orkestrak jo zuen. Argi entzun daiteke soinua, musikagileek tresnarik jotzen ez duten arren; jotzeko mugimenduak eta keinuak egiten dituzte, besterik gabe. Horrek galera eta zaurgarritasun sentazioa sorrarazten du, eta musika-tresna bat jotzeak keinuek eta gorputzaren mugimenduek duten garrantzia azpimarratzen du.

Sam Taylor-Johnson-ek (Londres, 1967) hainbat harralditan grabatu zuen orkestra, atalka, gainera; ondorioz, film zati horiek pantailatan banan-banan ematean, ikuslea orkestraren erdian dagoelako sentazioa du. Lanak musika entzutearen eta musikarien eta zuzendariaren irudiak ikustearen arteko lotura nabarmentzen du, alegia, soinuarena eta irudiena, eta ikuslea tartean sartzen du, banandutako bi pertzepzio horien arteko lotunea edo bitartekoa baita.

Taylor-Johnson-en argazki eta bideoinstalazioek, 1990ko hamarkadatik aurrera, giza emozio gordinenak aztertzen dituzte, horiek isolatuz, bakanduz eta zatikatuz, narrazioa hautsiz edo, *Hasperena* lanean moduan, irudiaren eta soinuaren arteko hautematea eraldatuz. Soinu-banda idazteko Anne Dudley egileak *Mamuak* (*Ghosts*, 2008) argazki-saila izan zuen oinarri; argazki-sail horrek Emily Brönteren *Wuthering Heights* (Gailur ekaiztsuak) eleberria du inspirazio-iturri, bai eta Brönte ahizpak hazitako Yorkshire-ko Haworth mortuak —pasaia hori haien eleberrien beste pertsonaia bat bihurtu zen—. *Hasperena* lanean, BBCko musikariek jotzen duten partiturak giza bizitzarik ez duten eremu ezatsegin horiek gogora ekartzen ditu; musika-tresnarik gabe, keinu naturalak baina, agian, gehiegizkoak eginez interpretatutako obra da.

Sam Taylor-Johnson

Sam Taylor-Johnson-ek (Londres, 1967) partekatutako gizarte eta psikologia ingurune eta egoerak aztertzen ditu zama emozional handiko agertokiak dituzten argazki eta filmen bidez. Haren lanak izatearen eta iruditearen arteko muga jorratzen dute: maiz erretratatuta pertsonak —banaka zein taldeka— barneko nia eta kanpoko nia gatazkan egotera eramaten dituzten egoeratan ipintzen ditu. David Beckham-en film-erretatua egin zuen harraldi bakarrean, soinurik gabe; astiro-astiro garatzen da eta argazki asko atera dizkioten pertsonaia ospetsu horren beste erretratuen aldean irudikapen lasaiagoa da. *Preludioa airea* (*Prelude in Air*, 2005) lanean, biolontxelo-jotzaile bat filmatu zuen Bach-en lan bat jotzen, baina musika-tresna ezabatu zuen; *Apurketa* (*Neska eta eunukoa*) [*Breach* (*Girl and Eunuch*), 2001] lanean ere antzera egin zuen: negar batean dagoen neska bat ikus dezakegu zoruan eserita, baina ezin dugu entzun, negarraren soinua ezabatu baitzuen. *Natura hila* (*Still Life*, 2001) lanean, arin hondatzen ari dira ontzi baten fruituak eta *memento mori* sortzen dute. *Joan den mendea* (*The Last Century*, 2005) lana pertsona talde baten irudi estatiko bat ematen du, baina apurka-apurka ohartzen gara film harraldi bat dela, zigarro bat piztuta bezain besteko iraupena duena.

Taylor-Johnson-ek halaber pisuaren eta grabitatearen inguruko hausnarketak egin ditu, *Igoera* (*Ascension*, 2003) filmean eta *Autorretratuak zintzilik I–VIII* (*Self Portrait Suspended I–VIII*) argazki-sailean, besteak beste. Horietan airean zintzilik irudikatu zuen bere burua, antza inolako euskarririk gabe zegoela; ideia hori *Ihesaren artista* (*Escape Artist*, 2008) seriean ere erabili zuen, zeinetan heliozko globoetatik zintzilik agertzen zen. Taylor-Johnson-en lehen film luzea *Nowhere Boy* (2009) izan zen, John Lennon-en nerabezaroari buruzkoa, 2009ko urrian London Film Festival jaialdian estreinatu zena; 2015ean *Fifty Shades of Grey* eleberriaren filma zuzendu zuen —asko saldu zen liburua eta ikusmin handia sortu zuen filmak— eta 2017an Netflix-entzako zuzentzen ari den telesaila, *Gypsy*, estreinatuko da.

Sam Taylor-Johnson-ek askotariko talde-erakusketetan parte hartu du, besteak beste, Veneziako Bienalean (2007) eta Turner Prize-n (1998). Bakarkako erakusketen artean aipatzekoak dira erakunde hauetan egindakoak: Kunsthalle Zürich (1997); Louisiana Museum of Modern Art, Humlebaek (1997); Hirshhorn Museum and Sculpture Garden, Washington (1999); Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, Madrid (2000); Hayward Gallery Hayward Gallery, Londres (2002); State Russian Museum, San Petersburg (2004); MCA, Mosku (2004); BALTIC, Gateshead (2006); MCA Sydney (2006); MoCA Cleveland (2008); Contemporary Art Museum, Houston (2008); eta Brooklyn Museum, New York (2010). 2011n, Taylor-Johnson Britainiar Inperioaren Ordenean sartu zen (OBE).

Film & Video (103. aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta irudia mugimenduan darabilten lanei eskainitako gunea da; bertan biltzen dira nola Guggenheim museoetako artelanak, hala nazioarteko beste bilduma batekoak. Areto honetako programazioa 2014ko martxoan hasi zen Christian Marclayren *Erlojua* (*The Clock*, 2010) instalazioaz; ondoren, berriz, Ragnar Kjartansson artista islandiarrak *Bisitariak* (*The Visitors*, 2012) instalazioa aurkeztu zuen; 2014ko urritik 2015eko martxora, Rineke Dijkstra-ren *The Krazyhouse* (*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee*) *Liverpool, UK* bideoinstalazioa ikusteko parada izan genuen; urte horretako martxotik eta uztaile arte, *Hariaren ibilbideak* (*Thread Routes*, 2010)

deitutako Kimsooja artista kontzeptualaren seriea ikusi ahal izan genuen. Hurrengo artelana, Shahzia Sikander-en *Paralajea* (*Parallax*, 2013) izan, 2015eko azaro arte ikusgai izan zena; ondoren *Ezagutzen ez denaren hodeia* (*The Cloud of the Unknowing*) etorri zena, Singapur-eko Ho Tzu Nyen artistarena, abenduaren 3tik 2016ko apirilaren 24ra ikusgai egondakoa. Azkenekoa Eija-Liisa Ahtilaren *Deikundea* (*The Annunciation–Marian Illestys*) izan zen, aurtengo maiatzaren 12tik abuztuaren 28ra ikusgai izan zena.

Azaleko irudia:

Sam-Taylor Johnson

Hasperena (*Sigh*, 2008)

8 pantailako proiektzioa, 8 min 37 s

© Sam Taylor-Johnson. Eskubide guztiak jabetunak dira. DACS 2015. Honen eskaintza: White Cube

Argibideak:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museolari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.es duzu eskueran (prentsa-eremua).

Imágenes para uso de prensa
Sam Taylor Johnson: *Suspiro*
Guggenheim Bilbao Museoa

Servicio de imágenes de prensa online

En el área de prensa de la página web del Museo (prensa.guggenheim-bilbao.es) podrán registrarse para descargar imágenes y videos en alta resolución tanto de las exposiciones como del edificio. Si todavía no tienen una cuenta, pueden registrarse y descargar el material necesario. Si ya son usuarios, introduzcan su nombre de acceso y contraseña y accedan directamente a la descarga de imágenes.

Para más información, pueden ponerse en contacto con el Área de Prensa del Museo Guggenheim Bilbao a través del tel. +34 944 35 90 08 o la dirección de correo electrónico media@guggenheim-bilbao.es.

Sam-Taylor Johnson

Hasperena (Sigh, 2008)

8 pantailako proiektzioa, 8 min 37 s

© Sam Taylor-Johnson.

Eskubide guztiak jabetunak dira. DACS 2015. Honen eskaintza: White Cube



Sam-Taylor Johnson

Hasperena (Sigh, 2008)

8 pantailako proiektzioa, 8 min 37 s

© Sam Taylor-Johnson.

Eskubide guztiak jabetunak dira. DACS 2015. Honen eskaintza: White Cube



Sam-Taylor Johnson

Hasperena (Sigh, 2008)

8 pantailako proiektzioa, 8 min 37 s

© Sam Taylor-Johnson.

Eskubide guztiak jabetunak dira. DACS 2015. Honen eskaintza: White Cube



Sam-Taylor Johnson

Hasperena (Sigh, 2008)

8 pantailako proiektzioa, 8 min 37 s

© Sam Taylor-Johnson.

Eskubide guztiak jabetunak dira. DACS 2015. Honen eskaintza: White Cube



Sam-Taylor Johnson

Hasperena (Sigh, 2008)

8 pantailako proiektzioa, 8 min 37 s

© Sam Taylor-Johnson.

Eskubide guztiak jabetunak dira. DACS 2015. Honen eskaintza: White Cube

